

M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Bergarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU Alkate jaunak 2019ko uztailaren 19an ondorengo dekretua eman duela:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2019-KALD-000007-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0220.623.153.40.04 2019	ERREMINTAK- OBRA ETA ZERB	12.000,00	9.300,00	21.300,00
1 0100.227.924.00.99 2019	UDAL KOMUNIKAZIOA HERRITARREKIN	46.980,00	7.800,00	54.780,00
1 0100.231.912.00.01 2019	GOBERNU ORG. DIETAK	2.200,00	2.200,00	4.400,00
1 0210.226.920.90.04 2019	GASTU JURIDIKOAK	9.000,00	12.100,00	21.100,00
1 0320.227.342.20.99 2019	KANPO KONTR - LABEGARAIETA	27.000,00	5.500,00	32.500,00

1 0220.221.920.00.03 2019	GASA-UDALETXEA	9.000,00	9.100,00	18.100,00
1 0320.221.342.20.03 2019	GASA LABEGARAIETA	2.600,00	2.700,00	5.300,00
1 0320.221.342.30.03 2019	GASA FRONTOIA	8.500,00	9.500,00	18.000,00
1 0700.210.454.00.01 2019	BESTE AZPIEGIT MANT AUZOBIDEAK	25.000,00	20.000,00	45.000,00
1 0500.221.231.40.03 2019	ETXE TUTELATUAK, GASA KOMUNITATEA	3.700,00	4.700,00	8.400,00
1 0220.221.165.00.01 2019	ARGI HORNIDURA - ARGITERI PUBLIKOA	160.000,00	20.000,00	180.000,00
1 0220.221.920.00.01 2019	ARGI HORNIDURA - ZERBITZU OROKOR	20.000,00	6.000,00	26.000,00
1 0210.222.920.10.01 2019	TELEFONOA – IDAZKARITZA OROKORRA	8.000,00	7.200,00	15.200,00
1 0220.227.441.10.99 2019	KANPO KONTR - HERRI GARRAIOA	185.000,00	8.500,00	193.500,00
1 0600.226.150.00.03 2019	PUBLIZ. HIRIGINTZA	4.000,00	4.000,00	8.000,00
GUZTIRA		522.980,00	128.600,00	651.580,00

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0101.870.010.00.01 2019	Diruzaintz. Gerak. garbia - Gastu Orokor	128.600,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			128.600,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.”

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2019ko uztailaren 19an.

